

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Azaroaren 4tik 9ra Iruñean izango da “Ingurumenari eta Klima-aldaketari buruzko Astea”

*Aldi berean izango dira klima-aldaketak mendialdeetan dituen ondorioei buruzko Europako herrialdeen arteko solasaldi bat, fenomenoaren inguruan informatzeko moduari buruzko biltzar bat eta natura kontserbatzeari buruzko ikus-entzunezko jaialdi bat.*

Martes, 22 de octubre de 2013

Azaroaren 4tik 9ra, Iruñean izango da “Ingurumenari eta Klima-aldaketari buruzko Astea”. Hainbat jarduera antolatu dira, esate baterako, klima-aldaketak mendialdeetan dituen ondorioei buruzko Europako herrialdeen arteko solasaldi bat, fenomenoaren inguruan informatzeko moduari buruzko biltzar bat eta natura kontserbatzeari buruzko ikus-entzunezko jaialdi bat.

Ekimen horien bidez klima-aldaketara egokitzea, jardun onak trukitzea eta herritarrei gaiari buruzko informazio zorrotz eta eraginkorra ematea bezalako alderdien ezagutzan aurrera egitea da asmoa. Era berean, ikertzaile, eragile sozial eta ekonomiko, administrazio eta hedabideen artean lankidetzeta eta ezagutzen trukaketa sustatzea ere bada ekimenaren helburua.

### **Mendialdeetako klima-aldaketari buruzko nazioarteko solasaldia**

Zehazki, Europako herrialdeen arteko solasaldia azaroaren 6an izango da Iruñeko Planetarioan. Euskaraz, “Behatu egokitzeke” izango da solasaldiaren izenburua. [Pirinioetako Lan Elkarteak](#) (PLE) antolatu du hitzaldia [Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokiaren](#) (KAPB) bidez, mugaz gaindiko erakundeak PLEren lehendakaritza hurrengo lurraldeari pasatzeko [Nafarroako hiriburuan egingo den osoko bilkuraren](#) barruan. Kargua Nafarroako Gobernuak izan du bi urtez Foru Komunitatea ordezkatzuz, eta Andorrak hartuko du hurrengo bi urteetarako.

Jardunaldian Frantziako, Andorrako, Espainiako eta Europako beste herrialde batzuetako ikertzaile, teknikari eta agintariak elkartuko dira, klima-aldaketak mendialdeetan dituen ondorioei buruz eztabaidatzeko.

[Programa](#) gaikako bi bloketan dago banatuta: goizeko hitzaldiak Europako mendialdeetan klima-aldaketara egokitzeke egiten ari diren ekintzei buruzkoak izango dira, herrialde guztiek dituzten arazoak azaleratu eta alor batetik bestera lekualda daitezkeen ekimenak azpimarratzeko. Testuinguru horretan, Pirinioak, Karpatoak eta Alpeak bezalako mendiguneen kasuak aztertuko dira.

Arratsaldean, Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokia prestatzen

ari den lana aurkeztuko dute. Erakunde hori da European eratu zen mugaz gaindiko lehena. Helburu nagusiak diagnostikoak burutzeko bitarteko eta metodoak homogeneizatu eta bateratzea dira, hau da, klima-aldaketaren eraginen jarraipena egiteko adierazle komunak sortzea eta gomendio bateratuak ezartzea, lurralde guztiek estrategia koherenteak aplika ditzaten. Besteak beste, behatokiak klima, ura, basoak eta naturaren eta bioaniztasunaren arriskuak bezalako elementuetan klima-aldaketak dituen ondorioak aztertzen ditu. Solasaldia amaitzeko, hedabideetan fenomenoak tratatzeko moduari buruz hitz egingo dute.

Doan joan daiteke solasaldira, baina linean lortu behar da akreditazioa, helbide honetan: [http://www.opcc-ctp.org/opcc\\_event/index\\_es.html](http://www.opcc-ctp.org/opcc_event/index_es.html)

### **Nafarroako Unibertsitatea: Komunikazioaren Nazioarteko Biltzarra eta Telenatura jaialdia**

Bestalde, aste berean, Nafarroako Unibertsitateko Komunikazio Fakultateko bi ekimen izango dira:

- XXVIII. Komunikazioaren Nazioarteko Biltzarra azaroaren 7 eta 8an izango da, eta, oro har, ingurumenaren inguruko eta, bereziki, klima-aldaketari buruzko kazetaritzaren eta komunikazioaren arteko elkarreraginean zerikusia duten alderdiak eztabaidatuko dira.

- Telenatura, Natura iraunarazi eta haren berri zabaltzeko XII. Jaialdia, astelehenetik ostiralera izango da (azaroaren 4tik 8ra), Iruñeko Planetarioan.

### **XXVIII. Komunikazioaren Nazioarteko Biltzarra. Euskaraz, " Klima-aldaketaren berri ematea: mundu-mailako agendatik hedabideetako irudikapenera "**

Nafarroako unibertsitateko Komunikazio Fakultateak antolatu du, eta bertan egingo dira saioak. Besteak beste, honako hauek aztertuko dira: ingurumenaren eta klima-aldaketaren gizarteko irudikapena, ingurumenari buruzko informazioaren tratamenduaren arau eta balioak kazetaritzan, informatzeko interesa eta zorrotasun zientifikoa aurrez aurre, irudi eta ikonoak, eta meteorologiaren dibulgazioa.

Programa begiratu eta izena emateko, joan helbide honetara: <http://www.unav.edu/web/facultad-de-comunicacion/cicom/programa>

### **Natura iraunarazi eta haren berri zabaltzeko XII. Jaialdia, Telenatura**

Telenaturak bi helburu ditu. Alde batetik, naturaren ezagutza eta harekiko errespetuta sustatzea du xede, kalitatezko pelikulen emanaldia eginda. Beste alde batetik, ekoizleei, gazteenei batez ere, egindako lana erakusten laguntzeko erakustokia eskaintzea da helburua; hala, eduki horretako programen ekoizpena sustatzen da.

Interesa izanez gero, begiratu programa esteka honetan klik eginda: <http://www.unav.edu/web/facultad-de-comunicacion/telenatura/programa>